

baleike

nork ez ditu etxebizitzarekin lotutako

arazoak?



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Izaskun Urbieta

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarraga

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Benat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
ze berri	6
orain hamar urte	10
elkarrizketa m^a eugenia arrizabalaga	12
su-etenaren ingurukoak	16
erreportajea parafarmaziak	21
gure zumai zarra emili ibarbia aldasoro	24
erreportaje txikia puntanuetako etxeak	28
kultura imanol azkue	30
zine forum	32
agenda	34



su-etena

zumaiarren iritziak

“Alaitasuna sortu digu bai aurtengo udaberriak, baina ilusio inozorik ez. Jakin badakigu oraindik ere arantza ugari izango dituela arrosa-landare honek...”

BALEIKEren bulego ordutegia: astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:30etik 18:30era

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

"Lotsagarria al da negar egitea?"

Otsailen bertsolari gazteen saio bat izan zen Aita Marin, eta gai jartzailak behin eta berriz, banan-banan bota zien puntua 8 mutil gazteei.

Guztiek, aurpegia pentsakor, eskuak patriketan, erantzun beretsua: nola ez?

Negarraren ona, barrua hustu beharra, norberaren atek zabalik uztea...

Harrituko ninduke duela 30 urteko plazagizonek erantzun bera emateak.

Hilabete geroago, leku berean "Lady Soka" antzezlanean, kaleetan barrena bere eromena zeraman emakumeak, bere nahigabea oihuka, festa bat antolatuko zuela zioen, eta bertara sarrera debekatuko ziela zoriontsuak zirenei.

Izan ere, gure behar guztiak ziurtatzen dizkigun bizitza honetan, tokatu zaigun ongizatearen gizarte honetan, ba al dugu arrazoirik haserre, triste, nazkatuta edo nahigabetuta egoteko? Eta areago, hala dela erakusteko?

Deialdiak egiten zaizkigu batzarretara, kontzentrazio-etara, gauza bat edo bestea salatzeke, eta egonezin "gregarioa" azaltzeko.

Eskaerak eta proposamenak iristen zaizkigu: yoga eta tai chi tailerrak, sabel dantza edo kontrol mental ikastarok, era eraginkor batean komunikatzen ikasteko minte-

giak, edo "risoterapia" topaketak. Zertarako? Gure estresak bideratu, gure energia negatiboak gainetik kendu, jarrera baikorrak erakutsi, eta hori bai, apuntadoreak txarteltxoak erakusten duenean, denok barre egin.

Horregatik, bertso saioaren ondoren, eta denbora luzean buruan bueltaka izan nuen galderaren eta doinutxoaren) erantzuna ez dut nik hain argi.

Agian txikitatik gehiegitxotan entzun nuelako "mutur-tuta ez ibili kalean, jendeak ez du zergatik jakin beharrik haserre zaudela", eta urteak aurrera, "barrua hustearen onura" aldarrikatuz ikusi ditudan milaka pelikula amerikano txatxuentzat eszeptikoegia izan naizelako.

Eta, Lady Sokaren hitzak lapurtuz, egunero jaiki, arropa ezberdinak jantzi, begiko marra egin eta irribarrea margotu, eta Erribera kalera zuzentzen gara.

Eta lapurretan jarraituz, duela gutxi iritsi zitzaidan mezu bateko bi lerro: "Eguneroko arazo saldoak akosatuta. Iozmendiak bezalakoak gara bizitzan zehar mantso-mantso igaroz, oso gutxitan erakutsiz azpian ezkututzen dena". Batzuetan zaila da, ez? Agian oker nago...



Miriam Romatet

dani



Udal honekin, postontzia bete spam



xa 2

Egunkaria irakurtzen ari nintzen orain dela egun batzuk, eta hara: *Oposizioak alderdikoitzat jo du Zumaia Lantzen buruzko EAJren esku orria.* (Noticias de Gipuzkoa, 2006-03-30). Bi egun geroago, to: *Oposizioak gogor kritikatu du Udala, "alderdikeria leporatuz".* (Urola Kostako Hitza, 2006-04-01). Di-da

batean, galdera bat burura: zertan dabilta?

Titularretan agertutakoa bakarrik da hori, baina barruan arrazoiak datoz. Eta haserreak. Zumaia Lantzen exfoliantea eman diote esku orri honekin, poroetako zikina atera, azala leunduz eta aurpegia garbituz. Alegia, makillajea. Esku orria deitu diote, baina izan zitekeen propaganda, izan zitekeen paskina, izan zitekeen spam paperezkoa.

Egunen batean, Udalak eta bertan nagusi den EAJ alderdiak eman beharko dituzte azalpenak urteotako

informazio politikari buruz. Kasualitatea da bestela. www.zumaia.net gunean sartu naiz, berrien atalean, eta oso eguneratuta egon ohi denez, esku orri famatuei buruzko albistearekin egin dut topo. Non daude bestelako albisteak, kirol taldeen jarduna, ostiraletako antzerki lanen kronikak... herriak ez du islarik webgune horretan. Eta Zumaia Paola izeneko zera horretan ere ez.

Oposizioko hiru taldek mozioa aurkeztu dute Zumaia Paolari buruz. Herritarrek aspalditik genuen kezka ofizialki jarri dute mahai gainean. Azpeitiko enpresa batek idazten ditu Paoleko berriak. Ez dago, ba, bertako kazetaririk, eta lana kanpokoentzat. Aurrekontu eder bezain potoloa duen zera honen banaketa masiboa da, eta eskatu gabe ere, postontzian sartzen dizute bi hilabetetik behin. Gaia beti berbera: *Zumaia va bien*. Irudipena daukat gainera, gero eta gaztelania gehiago sartzen dutela. Lehen testu nagusiak euskaraz ziren, laburpenak erdaraz. Orain gutxi, testu nagusi batzuk, tartean hirigintzari buruzkoak ere bai, erdaraz ikusi ditut. Zertan dabilta?

Badakigu informazioa laugarren boterea dela. Agintean daudenentzat, berebiziko garrantzia duela komunikazio politikak. Baina gauza guztietan bezala, hemen ere berdin. Nabarmen dabilenak ipurdi bistan gelditzeko arriskua du.

 **GAZTE, S.L.**
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA


Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko arrietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

dekorazioa 
ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

 696 726188
943 143261

 **ilarzi**
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzidea, 2 943861565 - 943143446

 **Emilio Perez**
Elektronika, telebista eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konposaketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adi@euskainet.net

Zumaia Lantzeni buruzko esku-orrien kontura...

Joan den astean, Zumaian plenoa egin zuten Forondan. Oposizioak gogor kritikatu zuten Udala, banatu diren 3.000 esku-orriengatik

Zumaia Lantzen izan zen EAJ-EA Udal Gobernuaren hasura eragin zuena duela hilabete. Orain, Udalak etxez etxe banatu dituen 3.000 esku-orriek eragin dute ika-mika. Oposizioak «alderdikieriaz jokatzeari» leporatu dio EAJri.

Gobernua hautsi zenean, Zumaia Lantzenen jarduerari buruzko hainbat iritzi agertu ziren; EAK, esaterako, gogor kritikatu zuen kudeaketa, eta hirigintzan «garrantzia handiegia hartzen» ari dela esan zuen, besteak beste. Horrek eragin du, nonbait, Udalak hartu duen erabakia: herritarrei Zumaia Lantzenen jarduerari buruzko informazioa etxez etxe banatzea. Halaxe azaldu du, behintzat, Maria Eugenia Arrizabalaga alkateak: «Elkarte publiko horren inguruan sortu diren zalantzak argitu nahi ditugu, gero eta herritar gehiago delako elkarteari buruzko informazioa eskatu diguna».

Oposizioa, ordea, ez dator bat iritzi horrekin. Izustarrik, esaterako, «Udala eta EAJ nahastea» leporatu dio Udalari berari, «diru publikoa erabiliz, EAJren iritzia emateko». Haien ustez, «EAJk abildade handia dauka publiko denera pribatizatzeke, beste guztiak bazterrean utziz».

Ezker Batua-Berdeak alderdiak ere gogor hartu zuen: «Zumaia Lantzeneko Administrazio Kontseiluan alderdi guztietako zinegotziak gaude, baina inor kontuan hartu gabe, berak erabaki du, diru publikoa erabiliz, elkarteari buruzko informazioa argitaratzea». Esku-orrian «dirutza gastatu» duela gaineratu du, «baina elkarte kudeatzen duen Esarbe SA, lan horietara nola iritsi den ez du azal-

tzen: noiz egin zen Zumaia Lantzen kudeatu behar zuen enpresa aukeratzeko lehiaketa publikoa?». Beste hainbat galdera ere egin du: «Ez al da kasualitate handia Urnieta Lantzen, Beasain Lantzen, Ondarroa Lantzen, Lazkao Lantzen eta Zumaia Lantzen Esarbe SAK kudeatzea? Ez al da kasualitate handia zenbait Udaletako Lantzen kudeatzen duen enpresa hori, EAJko alkate ohiekin hain eskuzabala izatea?».

Ezker Batua «harritu» egin du alkateak hori guztia ez azaltzea esku-orrian, eta «Zer ez dakigu Zumaia Lantzen buruz izeneko beste bat ateratzeko» aholkua eman dio, besteak beste, datu hau argitzeko: «Zumaia Lantzenen bitartez herrian egin zuen lehen lan handian, Izaga kaleko etxeen kooperatiba, Esarbe SAK alkateak esaten duen %3,25eko portzentajea baino gehiago eraman zuen». Egoera horiek saihesteko, «lan horiek guztiak Udalak berak egin ditzakeela» uste du Ezker Batuak, «Eсарbe SARI bate-re komisiorik eman gabe».

EARI ez zaio ongi iruditu esku-orriarena: «EAJren ikuspuntutik egin dute, eta Zumaia Lantzenen azken hitza zinegotziena bada ere, eguneroko jardunean ez dugu horrelakorik ikusten».

PSE-EEK esku-orriaren edukiarekin bat egin du, «Zumaia Lantzenek egiten duena azaltzen duelako», baina ez dator bat moduarekin: «Joan zen astelehenean egin genuen elkarteko Administrazio Kontseiluko batzarrean, esku-orria eginda eman zitzaigun, eta gure ustez, aurretik beste guztiokin adostu beharko zuketean».



ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

**TOMAS
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

Ikasleak Alemaniara eta Saharara

Alemaniako Hamburgo hirian izango dira Zumaiako Institutuko lehenengo batxillerreko 15 ikasle, apirilaren 4tik 10era bitartean. Alemaniarrak, berriz, urrian izango ditugu herrian.

Aurreko urteetan Danimarkako ikastetxeekin egin dute elkar trukea zumaiarrek eta aurten berriz, Hamburgoko Gesamtschule Horn eskolarekin egingo dute. Ikasleak familietan eta aterpetxe batean hartuko dute ostatua. Elkar truke honetan gizarteko gutxiengoak estatuaren baitan nola txertatu izango dute aztergai.

Trukaketa Alemaniarekin burutuko bada ere, ikasleek euren artean komunikatzeko ingelera erabiliko dute, hala, ikasleek ingelera egoera erreal batean erabiltzeko aukera izango dute. Bestalde, beste kultura bat ezagutzeko aukera izango dute eta horretarako ikastetxean Euskal Herriari eta Ipar Alemaniari buruzko aurkezpen bat egingo dute hemengo eta hango ikasleek. Honekin batera bi aldeen arteko gazteen bizimoduaren konparazioa egingo dute, besteak beste, erlijioa, familia, politika eta ohiturak aztertuz. Institututik azaldu dutenez, "kontraste handia dago hemengo eta hango kulturaren artean".

Ikasleek besteak beste, Hamburgoko udal-etxea, portua, Elbe ibaia, Alster lakua, Alemaniako Parlamentua eta Heidepark jolas parkea ezagutuko dituzte. Berlinera ere egingo dute irteera eta bertan Alemaniako historiari buruzko erakusketa eta Holokaustoa dela eta egindako monumentua ikusiko dituzte.

Saharako bidaia

Aldizkari hau kalera atera bitartean, ikasle talde bat Saharako kanpamenduetara joan da. Baleikeren **liburu eta diskoen azokan** lortutako diruarekin (eta beste erakunde batzuen laguntzaz) **300 kilo botika erosi dituzte** ikastetxeko arduradunek, eta kanpamenduetara daramatzate, hango kanpamenduetan banatzeko.



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Badatoz badatoz... San Telmoak!!!

Udaberrian sartu gara jada, aste santua ere gainean daukagu ... Konturatzeko gainean ditugu zumaierrok hainbeste maite ditugun festak. Herri guztian zabaltzen den txurro usaina... barraken zarata... alaitasun berezia nabarmentzen da egun horietan Zumaian. Erakundeak eta taldeak martxan dira jada ekintza ezberdinak antolatzen. Horregatik, festetan ere

aldarrikapenentzako lekua izango da. Bigarren asteburuko larunbatean, esaterako, euskal preso eta iheslarien eguna ospatuko da eta herri bazkaria eta manifestaldia egongo dira, besteak beste.

Gasze asanblada ere hor dabil gainerako egunetarako egitaraua betetzeko ahaleginetan, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

S A N T E L M O A K 2 0 0 6

OSTIRALA 21

Txupinazo alternatiboa, Gasze Asanbladak antolatuta. Zurrakapotea egongo da edateko.

21:00 - San Telmo kalekoen afaria.

22:30 - Aita Marin, Santelmotako bertso jaialdia. Bertsolariak: Amaia Agirre, Andoni Egaña, Igor Elortza, Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga, eta Jon Maia. Gai jartzailea: Josu Goikoetxea.

LARUNBATA 22

11:00 - Udal Txistulari Bandaren kalejira

12:00 -Txupinazoa. Jaitsiera, Musika Eskolako Trikitilariekin.

Hamaiketako Itxas Gain parean. Trikitilariekin eta Bertso Eskolako ikasleekin.

12:30 - Gasze koadrilen kalejira, TXATUNGA BEMBE taldeak lagunduta.

13:00 - Odieta pilotalekuan, ikastetxeetako haurrek eskainita, Euskal Dantza ikuskizuna.

14:30 - Frontoi Txikian, Herri Bazkaria.

Jarraian, koadrila arteko jolasak.

17:00 - XVII. Xisterazko San Telmo Txapelketa "Kaia-Kaipe Sariak". Final-erdiak.

18:00 - Eusebio Gurrutxaga plazan hasita, TXIMELETA txarangaren kalejira.

Ordu berean, Amaia plaza abiatuta, SUGARRI txarangaren saioa 22:00 - XVII. Xisterazko San Telmo Txapelketa "Kaia-Kaipe Sariak". Final-erdiak

22:30 - E. Gurrutxaga plazan, JOSELU ANAIK taldearekin dantzaldia.

23:00 - Erriberan, TXIMELETAK txarangaren doinuak

Ordu berean, Txosna eremuan, ZUGAK antolatuta, herriko taldeen eta talde gonbidatuen kontzertua.

24:00 - Erriberan, ESKELETOAK IKUSKIZUNA

IGANDEA 23

11:00 - Kofradian, hamaiketako herriko itsasgizon zaharrentzat (Arbus-tain Motorzale elkarteak).

11:00-14:00 X. San Telmotako Scalextric txapelketa Odietan

Ordu berean, SAMA SIKU Fanfarrearekin kalejirak herriko kaleetan.

12:00 - Haurren Tanborrada

17:00 - Buruhandi eta Erraldoien kalejira- Irteera: Kofradian.

17:00-19:00 - Scalextric saio berriak.

18:00 - Aita Mari aretoan, BARRE BIRA: GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO pailazoak, TXAN magoa eta ELVI sabelhiztuna.

18:30 - SAMA SIKU Txaranga kaleetan zehar.

Ordu berean, Amaia plaza, ZUGAK antolatuta, BMX erakustaldia.


dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com



TXINGURRI

Koap. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoa.

Balazoiak

22:30 - Tanborrada Berezia

Gauerdian, Kofradian Bandera Igoera, Jose Manuel Prieto Urbieta arrantzale ohiaren esku.

01:00 - E. Gurrutzaga plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

ASTELEHENA 24, SAN TELMO EGUNA

08:00 - Meza eta ondoren Jaunarekin Prozesioa eta Gaixoen Jaunartzea.

10:15 - Ohiturazko Prozesioa San Telmoren ermitara

10:30 - Meza Nagusia, itsasoaren aurrean otoiiza eta Parrokiara itzule-ra. San Telmoren erlikia gurtzea. Ondoren, agintari eta gonbidatuentzako hamaiketako Kofradian.

12:00 - INCANSABLES txarangaren kalejirak.

17:00 - Haur festa E. Gurrutzagan: KIKI, KOKO ETA MOKO pailazozen "Alaitu" ikuskizuna.

17:30 - Odieta pilotalekuan, Profesional Mailako Eskuzko Pilota Partidua.

18:00 - INCANSABLES txaranga plazan, eta jarraian herriko kaleetan zehar.

19:00 - Kofradian, erromeria LOTXO taldearekin.

22:30 - LOTXO taldearen saio berriak.

ASTEARTEA 25

08:00 - Hildakoen aldeko meza

OSTIRALA 28

21:00 - Zaharren Egoitzan, Bertso Afaria, eta jarraian, ZUMAIKO VIII. BERTSOLARI TXAPELKETA. Aurkezlea: Jon Maia.

23:00 - txosnetan, Rock Kontzertua: ITAKA, NUKE eta BLOK.

LARUNBATA 29

09:30-12:30 - Herri mailako Arrantza Lehiaketa, Talaipetik Paol muturrera bitartean. (Arrainik hil gabe)

11:00 - Itzurun hondartzan, Hondartzako XX. Futbol Txapelketa (azken partidua).

11:30 - Haur Jolasak Larretxoko plazatxoan.

11:30 - Eusebio Gurrutzaga plazan, V. Olaruzopa eta Rana Txapelketak Ekitaldia alaituz ELUSTONDO ANAI-ARREBAK trikitalariak.

12:00 - BEHEKO PLAZA eta Ondarroako ANTIGUAKO AMA abesbatzak Erribera kalean zehar.

Ordu berean, San Telmo Ermitaren parean, Telmo izeneko herriko seme eta kanpotik hurbildutako topaketa; jarraian bazkaria eta egunpasa.

17:00 - E. Gurrutzaga plazan, haur festa: POXPOLO, MOKOLO ETA KONPAINIA.

18:00 - Fanfarre topaketa: PASAI eta BIZNIETOS DE CELDÓN fanfarreak arituko dira herriko kaleetan zehar.

18:30 - ZUGAK antolatuta, Perkusio Kalejira.

19:00 - Aita Marin, San Pedro Txiki eta Txikienak taldeen jaialdia, Kataluniako Girijol abesbatza gonbidatuarekin.

22:00 - XVII. Xisterazko San Telmo Txapelketa "Kaia-Kaipe Sariak". Finalak

22:00-01:30 - Kofradian, Santelmotako Diskoteka IMANOL DJarekin (12-16 urte bitarteko gaztetxoentzat)

23:00 - BIZNIETOS DE CELEDÓN Fanfarrearen ekitaldia E. Gurrutzaga plazan eta herriko kaleetan.

Ordu berean, txosnetan, HARITZ SOUND SISTEMEN saioa.

Gainera, preso eta iheslarien eguna: triki-poteoa, bazkaria eta bertsolarien saioa, manifestazioa eta pertsusio-kalejira izango dira egunean zehar.

IGANDEA 30

11:00 - plazan, GORRITI ETA BERE ANIMALIAK.

12:00 - Odieta pilotalekuan Urrezko Aizkolaria 2006 Sariaren barne: HARRI TXIKIETAKO BINAKAKO TXAPELKETA: EIZMENDI- ASTORKI // AGIRRE-MINTXETA II

AIZKOLARI ERRONKA: MIKEL MINDEGIA // DONATO LARRETXEIA

Ordu berean, TRIKITXAS bikotea kaleetan zehar.

17:00 - haurren festa E. Gurrutzaga plazan: "Txatxikaraokea"

18:00 - Trainerutxoaren estropada, XXVI. San Telmo Saria.

Ordu berean, TRIKITXAS bikotearen doinuak kaleetan zehar.

18:30 - THE MCKENSY'S Clan Band taldearen kalejira.

19:00 - Kofradian, ETXABE ANAIAK taldearekin, erromeria.

22:30 - ETXABE ANAIAK taldearen saio berri bat.

Gauerdian, Banderaren jaitsiera eta Santelmoei agurra.



CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 Tel. 943 143346

Faxa. 943 861330

Santelmoetarantz orduan ere

Orain 10 urteko aldizkarian San Telmoetan ondo pasatzeko gonbitea egin genizuen, bai eta onartu ere. Izan ere, makina bat parranda egitekoak zineten orduan inkesta fotografikoan atera zinatez. Ai, garai haiek... San Telmo kaleko batek San Telmo egunean salda hartzera bere etxera joateko gonbitea ere egin zigun! Aurten ez gaude gonbidatuta? Orain 10 urte... eskubaloi taldeko kide batek idatzitako gutunean bere iritzia jakinarazi zuen kamixetetan jartzera zihozten propagandari buruz. Kirol portuak herria erdibitu zuela, baina ez zuela nahi taldea erdibitzerik. Orduko haiek ez omen zuten beste aukerarik izan eta...

Orain 10 urte... larrialdiko zerbitzuaren aldeko ekintzak antolatzen hasi zen herriko jende multzo bat. 200 lagun inguru elkartu omen ziren bilera batera, gaiarekin kezkatuta. Ez dakit gauza handirik lortu zen... kontuan hartuta gaur egun Zumaian 5etan amaitzen dela zerbitzua...

Orain 10 urte... Joxefran Ispizua elkarriketa-

tu genuen. Izan ere, mar-txoan aurkeztu zuten berak finlandieratik euskarara itzulitako liburua: Rax Rinnekangas idazle finlandiarraren "Ilargia ihesi". Irakurri gabe duzue-nok, une egokia duzue orain... Joxefranek, orduko hartan, finlandiera euskara bezain bitxia dela adierazi zigun eta erronka polita izan zela liburu hori egitea.

Orain 10 urte... drogei buruz ere idatzi genuen. Orain ere ondo etorriko litzaioke askori bertan jarri

genuen informazioa. Droga motak, ondorioak... Ez esan...zerrenda berritu beharko genuke.

Orain 10 urte... Zein egunetan aldarrikatu zen Errepublikan orain dela 60 urte baino gehiago? San Telmo egunean!... Bada, ez. Orain 10 urte kontatu genizuen...

Orain 10 urte bezala... ondo pasa Santelmoak!



H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, Txapartegik emandako tarta eder bat zozketatuko dugu. On egin!



GALDERA:

Denbora eta eguzki isila alferrik pasatzen dira argazkiko erlojuaren gaineretik, zerk itzala egin eta ordua eman ez dauka eta. Erlojua Alde Zaharreko horma batean dago eta aurrealdean jauregi eder bat dauka, idazkari ospetsu batena izandakoa. Tartean, plaza izena handitxo geratzen zaion leku bat, eta erdi-erdian iturri bat, 1888an egina, santu baten izena daukana. Garai batean, ura Karakas aldetik ekartzen zuten iturri horretara, Santiagoko padura eta Urola ibaia zeharkatuta; udako lehorterik handienez ere gau eta egun irteten zen ura, etengabe, eta ur hori ederki aprobetxatzen zen gero Beheko Albergarako. Gaur egun ere hor dago iturria, lehengo bizitasunik eta indarririk ez badu ere.

Nola izena du iturri horrek?

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi (Juan Belmonte 29 behea) otsailaren 10a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.

Aurreko zenbakiko erantzuna: San Telmo kalea

Saridunak:

- Oihane Sanchez
- Manex Azkue
- Mentxu Fernandez
- Antonio J. Sanchez

Parte hartu eta zorte on!!

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airra** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englandi
espagnol
catalonian
suomi basc
català finnois
français anglès
catalán française
castellano finnish
inglés baski catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Maria Eugenia Arrizabalaga Zumaiaiko alkatea

“EArekin konpontzen saiatu gara, hauek eta besteak adierazpen publikoak egiten hasi diren arte”

Hauxe da bada joan den hilean agindutakoa.

Gogoratuko duzueenez, Udaleko gobernu koalizioa hautsi zenetik makina bat adierazpen egin zituzten koalizioko kideek eta beste alderditakoek, Zumaia Lantzenen eta Udalaren jardunari buruz. Elkarrizketa egin genuenean, PSEkoek kaleratua zuten agiri bat...

BALEIKE

M^a Eugenia Arrizabalagak eta Lide Amilibia zinegotziak hartu gaituzte alkatearen bulegoan. Hauxe izan da bilera horretan ateratakoa.

PSEk argi utzi izan du hausturaren errua ez dela berea. Ze iritzi duzu zuk horren inguruan?

Guk geure arrazoiak izan ditugu hausturarako; beti ibili gara koalizio-kide artean gauzak bere onera ekarri nahian, baina, asteak joan, asteak etorri, jarrerak hurbiltzen joan beharrean, geroz eta gehiago aldentzen joan direla konturatu gara.

PSE-k ez du guzti honetan zerikusirik, eta gainerako alderdiek ere ez. Bost alderdi gara Udalean, eta bakoitzak gauzak ikusteko bere modua du.

Beste alderdiekin hitz egin duzue honi buruz?

Guk argi izan dugu koalizioak iraun duen bitartean, etxe-koen artean konpondu behar genituela arazoak. Eta, noski, koalizio bat dagoen bitartean ezin dena da beste inorengana jo "sopak eskatuz", edo negoziazio bat proposatuz. Baina zurekin koalizioan doanaren kontrako jarrera duzunean... Horregatik izan da ezinbestekoa koalizioa haustea, hemendik aurrera beste batzuekin hitz egiteko eskuak libre izateko.

Hain zuzen ere koalizioan zintan bi alderdiek elkarri egozten diozue haustura. Zein izan da benetako arrazoiak zuen ustez?

Begira, guzti hau azaroaren erdi aldera hasi zen. 2006rako aurrekontuen proiektua landu genuen, departamentu desberdinetako batzorde buruekin egon, tekniko bakoitzak, beharren araberrako proposamenak jaso, eta abar. Ohiko prozedura, urte berrian gauza berriak egiteko, edo beste zenbait bertan behera



uzteko. Ordura arte ez zen inolako arazorik izan. Gobernu-koalizioa osatzen genuenok geure arteko bilera bat izan genuen, aurrekontu-proiektua atalka-atalka azaltzeko. Ia bilera osoan ez zen arazorik izan, Izartu programaren bitartez Jaurilaritzatik lortutako dirulaguntzak, Odieta-Gurrutxaga proiektuaren finantziazioa egin ahal izateko Udaletik Zumaia Lantzenera pasatzeko azterketaren unea iritsi zen arte. Orduan azaldu zuen EAK lehen aldiz bere aurkako jarrera, eta Zumaia Lantzen Odietako proiektu osoa eramatearekin ez zegoela ados adierazi zuen. Harrez geroztik, beraien kontrako jarrera azaldu izan dutenean, horretarako izan dituzten arrazoiak bilakaera handia izan dute.

Hasieran, Udalak "negozioa bilatzen zuela" asmo horrekin: gu harritu egin ginen adierazpen horiekin. Izan ere, Izartu dirulaguntzaren eskaera egin zenean azterketa sakon bat egin zen (2003. urte amaieran). Izartuk bost parametro eskatzen ditu justifikatu beharrekoak (bizilagunen adina, langabezia, etab.). Guzti horiek justifikatu ez ezik, asmoen berri ematen zuen laguntza eskaera txostena aho batez onartua izan zen Udalbatzan, eta hasiera hasieratik argi geratu zen Zumaia Lantzenen bitartez eramango genituela aurrera proiektu horiek. Bestalde, 2004ko Udal aurrekontuen likidazioa egin ondoren 500 milioi pezeta geratzen baitziren. Ez ohiko proiektuen bidez herrira itzuli beharreko dirua. Diru kopuru hori batetik, dirulaguntza bestetik, proiektuari gauza berriak eranstea erabakita genuen: Torreberri eta frontoi txikia berritzea, Foronda alderako igogailua egitea, E. Gurrutxaga ez ezik Zuloaga plaza ere berrurbanizatzea, lurazpiko aparkalekuak egitea, hauetatik etxe berriaren barrualdetik beste igogailu bat San Jose kalera,...



Horren aurrean, zein zen gobernuan zenuten desadostasuna?

Aurrekoarekin lotuta, nola zitekeen Udalak (edo Zumaia Lantzenek, berdin dio) "negozioa egiteko" asmoa izatea? Ezinezkoa: ahal zirenak baina 9 etxe gutxiago, fitxakoak baino azpiegitura askoz gehiago, bota beharreko etxe jabeegi egingako eskaintzaren arabera moldatutako operazioa, etxeen kontuan diru publikoa jarri gabe, bizilagunei eskaintza posibilista bat eginda, operazio horren desoreka libre geratzen diren 11 etxeei doi-doi egotzita...

Gure aldetik, ahal zen salneurri merkeenean aterako genituela adierazten saiatu ginen, zerrendak egiten, zozketak... eta beti ere promozio pribatuak egingo zituenaren prezioetik askoz beherago. Ez zuen balio izan.

Ondoren "Udalak berdintasun printzipioa urratzen zuela". Gure erantzuna, ez dagoela berdintasunik ezberdintasunean, eta Odietako etxe zaharren jabe direnak direla, eta ez gainontzekoak. Eta ez zitzaizela diru publikorik erregalaten... Ez zuen balio izan.

Ondoren "pribatuaren eta publikoaren arteko marra desgerrarazten dugula". Guk, marro hori, izatekotan ere, interes orokorraren arabera marraztu behar dela.

Ondoren operazio "atipiko" bat egin nahian gabiltza, eta guk, tipikoa izan hala ez gai garelara egiteko. Eta bestela, beraiek proposatzeko beste era egokiago bat. Zenbaki eta guzti, noski. Ez da horrelakorik iritsi gure eskuetara.

EAK zenbait iradokizun egin izan digu, bai, Odietako etxeen ordezkapenaren inguruan. Bat, aprobetxamendua gehitzea, horrela etxeak Udalak berak egin beharrean promotore pribatuek egin ahal izateko moduko etekinak sor daitezzen; edo fitxa aldatu, bertako aprobetxamendua Udalak ez dezala gauzatu promotore batek baizik eta urbanizazio kargak soilik gera daitezzen udalaren diruen gain. Baina guk ez dugu inondik inora ikusi, ez bata ez besteak, inolako onurarik ekartzen dituenik, ze, aprobetxamenduaren gehikuntzak etxeek altura gehiago izatera eramango luke. Eta, bestalde, zer onura dakar zumaiairrentzat operazioaren etekina esku pribatuetan

utzi eta karga guztiak diru publiko bitartez egiteak?

"Guzti hau azaroaren erdialdera hasi zen. Ordurarte ez zen inolako arazorik izan"

Etxeak dauden bezala utzi eta berritzea ere proposatu dizute, ezta?

Bai. Alderdiari bidalitako eskutitz batetan, alternatiba hori ere proposatzen ziguten, Odietako etxe horien balio historikoan oinarrituz. Baina, etxe-jabe direnei, beraienaren truke beste bat eman eta libreak merkatuko prezioen azpitik salduz operazioa egokitzea, "berdintasunaren aurka" baldin badoa, berdintasunaren ildotik,

nola ulertu Zumaia osoko jabe horiei bakarrik laguntzak eskaintzea beraienak diren etxeak konpontzeko. Ze, herrian makina bat etxe egongo dira berritzeko beharrean... Gaur egungo araudiak aplikatzeko ezintasuna kontutan hartu gabe (irrisgarritasuna, segurtasunari buruzko araudia eta abar).

Zuen ustez, beraz, Zumaia Lantzenen aurkako kritikak ez dute fundamenturik?

Argi geratu da Zumaia Lantzen ez zaiela gustatzen. Elkartea 1992an sortu zen, eta makina bat lan egin du ordutik. Laneko sistema ez du aldatu, eta emaitzak hor daude. Azken boladan, beste herri batzuetan era eratu dituzte horrelako sozietateak eta zenbait etorri ere Zumaian gauzak nola egiten ditugun galdezka.

Beste herrietan ere horrelako erakundeek kudeatzen dituzte etxebizitzak eraikitzeko lanak?

Horretarako ez ezik, egin ahal dituzten lan guztietarako ere erabiltzen dituzte udal elkarteak beste zenbait herritan. Hala ere, Zumaian heineko maila inork ez du lortu oraindik. Zumaian egin den etxe publiko kopurua adina ez da beste inon egin.

Udalak Izarturen dirulaguntzak eskura baldin baditzaie, zergatik egin behar ditu lan horiek Zumaia Lantzenek?

Egitura askoz malguagoa duelako. Zumaia Lantzen Udalak sortu zuen, eta Udalak erabakitzen duen egunean desagertuko da. Ez du inolako hipotekarik sortzen alde horretatik. Abantaila asko ditu, eta luze aritu gaitezke hemen azaltzen: funtzionatzeko prozedura, BEZaren inguruan, kredituak lortzeko, saltzeko, erosteko erraztasunak... Beharbada zenbait tek esan dezakete asmo ilunak ikusteko tentazioa, baina ez dago horrelakorik, jarduna merkea da. Gaurdaino Zumaian lortu ditugunak azken hamabost urtetan dugun lan-sistemarekin, ea non lortu diren.

Lorpenak lorpen, oposizioak kudeaketa kritikatzeko du, eta esaten du lehiaketara atera behar liratekeela proiektuak...

Eta ateratzen dira... (Zumaia Lantzenek aldizkari ofizialean aurkeztutako lehiaketen txosten bat ateratzen du mahai gainera). Kontratazio legea ez omen dugu betetzen... Legea aldatu eta elkarte publikoei aplikagarria izan baino lehenagotik betetzen du Zumaia Lantzenek Kontratazio Legea. Zinegotziek kontrola galdu omen dute... Zumaia Lantzenen administrazio kontseilua 95 aldiz elkartu da, eta bertan alderdi politiko guztiak daude ordezkaturik. Legegintzaldi honen hasiera arte aho batez egin dira gauzak. Eta gauza ikusgarriak lortu dira.

Ez dakit zergatik dioten orain Udalak egin dezakeela lan bera. Pentsa, ezker abertzaleak, aurreko legegintzaldiaren

kasutan, Udal aurrekontuei ezezik botoa eman arren, argi adierazi izan zuten zenbaitetan, beren aurkako jarrera ez zela Zumaia Lantzenekiko, horren jardura ontzat jotzen zutelako. Izan ere, Zumaia Lantzenen etsirik handienak promotore pribatuak dira. Zumaia Lantzen lurren jabe egiten da, ildok markatzen ditu, eta baita prezioak ere.

"Pribatuaren eta publikoaren arteko marra, izatekotan ere, interes orokorraren arabera jarri behar dela diogu guk"

Egitura hori gutxi batzuen esku dagoela salatzen du oposizioak, ordea. Izenak errepi-katzen omen dira asko...

Bai, eztabaida hori EArekin izan dugu. Baina kontutan hartu kritika hori egiten dutenek administrazio kontseiluaren parte direla, eta kontseiluak erabakitzen duela zeini esleitu lanak. Esate baterako, arkitektura baten kostua, edo estetika, edo irtenbide teknikoaren balorazioaren proposamenarekin ados ez daudela?... ba adierazi dezatela desadostasuna eta horren zergatia dagokion kontseiluan. Prozesu osoan parte hartzen dute, ez bakarrik Zumaia Lantzeneko arduradun

eta teknikoak, baita Udal arkitekto eta idazkariak ere. Orain, guztiak maltzurkeriatan dabilzala esan nahi badute... Inolaz ere ez da onargarria.

Kaleko jendeak zalantzak ditu ordea, instituzio publikoen jardunaz; informazio falta ez al dago?

Behar bada zaila egiten zaigu nahiko genukeen informazio guztia era egokian azaltzea. Hala ere, saiatzeko gara. Eta hemendik aurrera, jendearen informazio eskaera ikusita, ahal legin berezia egingo dugu. Dena dela, benetan, ez daukagu ezer ezkatutzeko asmorik, ez eta beharrik ere.

Oposizioak egindako adierazpenetan aditzera eman dute ez duzuela negoziatu nahi izan? Egia al da kritika batekin etortzen zaizkizuen bakoitzean, alde batera uzten dituzuela?

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051
S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Lehen ere esan dut, koalizioa mantentzen den bitartean ez zaigula zilegi iruditzen beste indar politiko batzuegana jotzea negoziatzeko. Horretaz aparte, nik ez dakit ba, zein izango den bakoitzak duen inpresioa. Nik dakidana zera da: gauzak, teknikarien laguntzarekin, noski, ahal den ondoen gauzaten saiatzen garela, eta batzordeetan denetaz jarduten dugula. Hortik aurrera, bakoitzak noski, bere iritzia.

Prentsan agertu zen beste informazio batek obra bakoitzaren operazioaren ehuneko zati bat Zumaia Lantzen kudeatzen duen enpresa pribatuarentzat dela dio. Hala al da? Kontratua, Zumaia Lantzenek 92an sinatu zuen Esarbe S.A. enpresarekin. Erabili zen formula, egin ala ez "iguala" bat ordaindu beharrean, emaitzak gauzaten ziren, eta errealak bilakatzen ziren heinean obra beraren ehuneko bat ordainduko zitzaienarena izan zen. Ordain-sari finakoak ezarri ziren, %9, %6, %4, %2, edo hutsa, lanaren arabera. Bataz beste jaso dutena %4aren bueltan izan daiteke, ez dugu oraindik kalkulu zehatz bat egin. Kontutan hartu behar da, portzentaia obren gain aplikatzen direla, eta ez beharrekoak diren beste zenbait gastuen gain (alegia, proiektuak, zuzendaritzak, eta abar). Zerbitzu enpresa horrek beren lanagatik, gainontzeko diren enpresa guzti guztiek bezalaxe kobratu beharko du, ezta?

Beraz, hala ere, merkeagoa al da lan horiek Zumaia Lantzenek kudeatzea?

Dudarik gabe, etxebizitzak enpresa sustatzaile batek egitea baino askoz merkeagoa da. Esate baterako, Odieta proiektuan, promotore pribatu batek 24 etxeak egiteko aukera ere aztertu dugu, eta egia esan, zenbakiak ez dira inondik inora ateratzen. Gure planteamenduen arabera, kaltetutako jabe-ei egin diegun proposamena kontutan izanda, eta operazioaren kostuak –aurreproiektuen arabera– libre geratzen diren 11



“Zumaia Lantzenen etsairik handienak promotore pribatuak dira”

etxeei egotziz, 32 milioi inguru pezetatan saltzeko moduan ginatke. Inolako promozio irabazirik gabe. Beraz, promotore batek logikoak dituen irabaziak atera ahal izateko, zenbatetan saldu beharko lituzke? Askoz garestiago. Ondorioz: lortzen den guztia lortuz, etxeak 32 milioi horietan salduz, ezinezkoa da horretan interesa eduki dezakeen promotorerik aurkitzea.

Beraz, zuek negoziatzen saiatu zarete?

EArekin konpontzen saiatu gara. Hauek eta besteak adierazpen publikoak egiten hasi diren arte. Guk argi ditugu zenbait gauza: Zumaia Lantzen Zumaia-entzat baliabide ona dela, eta frogatu duela; Odieta-Gurrutxaga asmoak asko hobetuko duela herria; gauzak egin aurretik sakonean aztertzen ditugula. Eta orain arteko emaitzak begi bistakoak direla. Batzuentzat, ordea, badirudi dena oker egin dela... Guk denei utzi diegu proposamen alternatiboak egiteko denbora eta aukera, paper gainean beste zenbaki eta formula batzuek defendatzeko aukera luzatuz. Eta ez dugu erantzun argirik jaso.

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

FARMA ZUMAIA
PARAFARMAZIA

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Irudiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozuloak, Estresaren, Antzetabaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

SU-ETEN ITXARO PENT SUA

ETAk su-eten iraunkorra ezartzen zuela adierazi zuen martxoko azken astean. Milaka izan dira ordutik hona jaso diren adierazpenak, eta kalean ere nabari da zirrara, urduritasuna, poza, itxaropena...

Guk ere gure ekarpena egin nahi izan dugu. Horregatik, Zumaiako zenbait laguni eskatu diogu su-etenaren inguruan beren balorazioa egiteko. Hemen dituzue bildu ditugun iritziak (lortu nahi genituen guztiak ez dauden arren):

Su-etenaren dela eta

Joanito Dorronsoro

Lerro batzuk eskatu dizkizate gure Baleike-koek eta baietz erantzun diet. Seguru nago ezezko borobila emango niela lehentxeago politikaz zerbait idatz nezan eskatu izan bali-date. Izan ere, kukuaren kantuarekin batera, hitz egiteko gogoia ekarri dit, aspaldian ez neukana, martxoaren 22ko notiziak. Geroztik irratia entzun, egunkariak irakurri eta lagunekin politikaz mintzatzeko gogoia piztu zait. Egia esan, poztu egin naiz benetan su-etenarekin eta eman duten moduarekin. Nabari da aurrez lan asko egin ondorengo urrats sendoa egin dutela. Gure herriak gogoz jaso du berria, Europa eta mundu osoak ere bai.

Alaitasuna sortu digu bai aurtengo udaberriak, baina ilusio inozorik ez. Jakin badakigu sufrimenduak jarraituko duela gure artean, oraindik ere arantza ugari izango dituela arrosa-landare honek, baina espero dezagun zulatu arinagoak izango direla hemendik aurrera. Badakit ondo, bai, Euskal Herria existitzen dela munduko beste guztien artean eta bere eskubideen jabe dela onartua izan dadin, irtenbide aldapatsuari ekin besterik ez diogula egin gaurkoz. Arrisku, oztupo, eta probokazio asko agertuko da bazterretan, bidean aurrera egin ahala, hasi gara ikusten. Zaila eta gogorra

izango dela diote; ni ere horretan nago, kontrako interes indartsuak dituen jende asko baitago.

Konponbidearen bila, buruz eta pazientziaz jokatzeko komeni zaigu herritar guztioi. Zerbait konpontzeko bidea, ez al da hitz egokia haxe, konponbidea? Amets egin nahi dut, herritar eta alderdi guztion borondate onez eta elkar hartuta, gure herria eta euskara indarberitzen asmatuko dugula. Nahi nuke geure arteko zauri mingarriak sendatzen joan daitezen adiskidetaz. Behingoz, herritarrik eta lurralderik baztertu gabe, guztion partaidetzarekin Euskal Herri osoko eskubide guztiak errespetatuak izatearen bakea eraikitzea dugu esku artean egin-kizun eta buruan amets. Nori berea, omen, gizalegea. Arte arbolak ez du sagarrik ematen. Justizia da bakearen fruitua eman dezakeen zuhaitz bakarra. Asko eskatzea al da, gaur egunean, kanpokoek laga gaitzela bakean, geure arazoak geuk, gure arteko guztiok erabakitzen? Bai, ba asko eskatzea da.

Gogoan daukat, Joxe Azurmendi idazle ezagunari irakurri niola behin bere artikulu sakon baten amaiera-ondorio gisan honako esaldi hau: euskaldunok oso zaila daukagu ETAREN borroka armatuarekin, hau gabe ere bai, oso zaila. Ikus dezagun, saia gaitzen merezi du-eta.

Modu berriak etorkizunari begira

Joxean Galdona

Su-etenaren iragarpenak, berriro gure giro sozial eta politikoa beste erronka baten aurrean ipintzen du. Duela zortzi urte itxaropena nagusi izan zen bezala gure inguruetan, iruditzen zait oraingo honetan modu apalagoan eta zuhurtzi handiagoarekin hartu dugula albistea baina aurrekoan ez bezala barneratuagoak ikusten ditut eman diren urratsak, euforiak alde batera utzita.

Orain arteko bideak bereak egin duela uste nagusia da sektore zabal eta anitzetan, baina zein bide dira egokiak ikuspegi abertzale eta demokratiko batetik? Lizarrako ere-

duak porrot egin eta gero, aurkituko ahal dugu eraginkorra izango den estrategiarik? Gai izango ahal gera elkarrizketa eta akordioaren kulturak eskatzen dituen ezaugarriekin helburuak defendatzen?

Politikariei bereziki ozen eskatu beharko genieke protagonismoak alde batera utzita bere lana ondo bete dezaten.

Hasten den bidea zaila izan arren Bilboko manifestazio erraldoiaren leloa denontzako lagungarri izan dadila: Euskal herria, erabakia, adostasuna.

Bizi dugun egoera

Itziar Arrizabalaga

Euskal Herrian bizi dugun egoera berri honekin oso itxaropentsu naiz. Niretzat, su eten iraunkorra izan da bake prozesua bultzatzeko ETAK egin duen urratsa; halere, urrats honek soilik ez du bakea ekarriko; izan ere, ETA gatazkaren ondorioa da, eta ez kausa.

Bestaldetik, betiko marko juridiko-politikoarekin jarraitzen dugu; ezker abertzaleak legez kanpo jarraitzen du, bere bozeramaileak atxilotzen dituzte; dispersio politikak bere horretan jarraitzen du; euskal preso politikoen eskubideak ez dira errespetatzen; e.a.

Halere, nahiz eta konponduta ezer ez egon, argi dago konponbide demokratikorako atea irekita daudela; horrexegatik, denok inplikatu behar dugu prozesu honetan, bake prozesu honek aurrera egingo badu herritar guztion parte hartzea beharko du. Alderdikeriak eta protagonismoak alde batera laga eta Herri bezala jokatzeko ordua heldu zaigu.

Etorkizuna geurea da, ez dezagun aukera hau galdu, behingoz, euskaldunak bezala askatasunean bizitzeko, hain zuzen.

Bazen garaia! Bada garaia!

Joseba Ossa

Pozez eta itxaropenez hartu nuen ETAREN su-eten iraunkoraren berria. Poz eta itxaropen handiz.

Ez da dena, baina asko da.

Ez da bakea, baina asko laguntzen du bakegintzan.

Ez da bidearen amaiera, baina bai urrats garrantzitsu eta behar-beharrezko.

Behingoz ETAK besteei hainbestetan eskatu diena egin du: herriaren borondatea errespetatu. Bazen garaia, bai, eta ongi-etorria izan bedi.

Asko poztu nintzen, arrazoi askorengatik. Hasteko, sufrimenduaren katea eteten hasi delako. Heriotzaren mehatxua bizkar gainean zeramaten askorengatik, ETAREN gutun mehatxaileak jaso eta sufritu dituzten guztiongatik, torturak eta tratu txarrak jasan dituztenengatik, presoengatik eta haien senideengatik, alde askotan nola edo hala sufrimendu latza jasan duten guztiongatik, hemendik

aurrera mehatxu horiek guztiak arintzen joango diren itxaropenez...

Bestetik, herrigintzan aurrera egiteko baldintza hobeak ditugulako orain: gizarte eragileen arteko elkarlana errazagoa izango da, oro har. Bi Udalbiltzak bat egiteko aukera handiagoak daudelako. Euskal Herriaren alde egiteko askoz hobeto gaudelako. Konponbide politikoa hurbilago dagoelako, eta beste arrazoi askorengatik. Oztupoak eta mehatxuak hor egon arren, lehen baino askoz hobeto gaude. Bada garaia elkarlan estuagoari ekin, eta aurrera egiteko.

Atzera begira jarrita, triste da hainbeste sufrimendu eta kalte alfer samarrik izan direla ikustea. Eta ez alferrik bakarrik, kaltegarri ere bai.

Aurrera begira jarrita, berriz, itxaropen bat: gure askatasun eta justizia amets ederrak ez daitezela berriro amesgaizto bihurtu, ez geuretzat, ez beste inorentzat ere.

Iritzia su-etenaren inguruan

Arritxu Santamaria Hitzarmenerako Mahaiaren koordinatzailea

Heldu da horrenbeste espero genuena. Lortu dugu esperantzari ate bat irekitzea. Lortu dugu Euskal Herria eraikitzearen aldeko elkarlanean aritzeko bidea egiteko lehenbiziko aukera eta pausua ematea.

Konponbidearen aldeko lana ez da erreza izan. Atzean utzitako esperientzia mingarriek erakutsi dutena, batetik, eta gure seme-alabentzat beste etorkizun bat nahi genuen askoren elkarlana eta tinkotasunak, bestetik, abiapuntu berri honetara ekarri gaitu.

Eskutan dugu orain elkarren errespetuan oinarrituta,

auzoz auzo eta herriz herri, bertan bizi garenon artean geure herriaren alde lan egiteko aukera; Euskal Herri euskalduna, buru jabea, oparoa eta demokratikoa eraikitzeo aukera; zazpi lurraldeak batera lantzeko aukera; eskutan, azkenik, geure herriarentzako hitza eta erabakia lortzeko aukera.

Zailtasunak zailtasun, gogor saiatu behar dugu gure berezko eskubideen errespetuan oinarritutako betirako bakea eraikitzen eta, hala, gatazka politiko berrientzako inongo zirrikiturik ez uzten. Hala bedi!

Su-etenaz eta bakeaz

M^a Eugenia Arrizabalaga EAJ-PNV

Bati baino gehiagori entzun diogu, azken egun hauetan, ETA-ren su-eten iraunkorrak ekarri digun egoeraz gozatzeko tarte pixka bat behar dugula. Datozen hilabeteetan ezinbestekoa den lana bideratzeko, aurrez ongi jabetu beharrean gaude egoerak izan duen aldaketaz eta sortu dituen aukera berriez.

Bake prozesua eta normalizazio prozesua dira oraingo lehenetasun nagusiak, eta alderdi politiko nahiz gizarte eragile guztiok hortxe murgildu behar dugu buru-belarri. Tentazioa izan dezakegu, batez ere alderdi politikook, hauteskunde garaia gerturatzen doan eran, beste alderdiei eraso merkeak egiteko,

eta hori huts larria izango litzateke, guztion parte hartzea ezinbestekoa baita prozesuak aurrera egingo badu.

Orain arteko eraso dinamika alde batera utzi, eta bestearen arrazoiak eta zailtasunak ulertzeko ahalegina egin beharrean gaude. Topikotik gertu baldin badago ere, behin eta berriro azpimarratu beharrean gaude burua hotz eta bihotza bero izan behar ditugula, hori bai, tripak bakean utzita.

Lehen ere aukera galdu genuen. Eta Zumain ondo dakigu zer ondorio ekarri zigun usteldutako aukerak. Udaberri honek bakearen kimua indartuko duen itxaropena dugu.

Aukera berriak eta lanerako garaia

Andoni Etxaniz Izustarri

Iritsi da "su eten iraunkorra", eta horrekin batera, herritar guztiok aukera berriak, bide berriak, ilusio berrituak ikusi eta sentitu ditugu.

Lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkiet zuhur-zuhur eta konpromiso osoz egoera hau iritsi zedin lan egiten dute gizon eta emakume guztiak. Bizi dugun egoera hau ez da alde bakarraren meritua; hemen borondate eta konpromiso ugari bildu dira eta su etenean mamitu da.

Garaia honetan, ordea, guztiak ez dute berdin jokatzeko batzuk lan diskretua egiteko prest daude; beste batzuk, berriz, protagonismo bila dabilta. Batzuek prozesua abian jarri nahi dute; beste batzuek, berriz, prozesua nola bukatuko den kalkulatzeko dute, ea egoera berri hori interesatzen zaion edo ez aurreikusitua nahian. Batzuek herri honen esku-

bideak defendatu nahi dituzte; beste batzuek, berriz, alderdiaren interesak soilik defendatuko dituzte. Hori guztia argi ikusi da Bilboko manifestazio jendetsuarekin bat egiteko orduan.

Egoera berria daukagu eta ezin dugu aukera huts egin. Herritarrok behartu egin behar ditugu alderdi politiko guztiak, serio eta alderdikierarik gabe lan egin dezaten, eta geuk ere lan egin, prozesu honetan inplikatu eta parte hartu. Batzuek urte asko pasatu dituzte ETArekin aitzakian. Instituzioen gestioek ematen duten dirutza izugarriak kontrolatu eta alderdikideen artean banatzen, negozioak egiten ohitu dira. Bada ordua norberaren negozioak eta interesak utzi eta Herrian pentsatzen hasteko. Gure txanda da; lan egiteko garaia da; herritarren ordua da.

Bake prozesua

Iñaki Agirrezabalaga EA

ETAk iragarritako su etenaren erabakiak itxaropena ekarri du herri honetara. Erabaki hori ez da ezerezetik sortutako urratsa, baizik eta lan politiko luze, zail eta era berean itxaropentsu baten emaitza publikoa da. Su etenaren erabakia bake prozesu horri eman zaion bultzada izugarria da, bake prozesuari beste abiada bat emango diona eta, ziurrenik herritarren parte hartzea eta inplikazioa areagotuko dituena. EAn, behintzat, oso harro gaude egin dugunarekin, eta egin dugun moduarekin.

Elkarrizketa politikoa, desberdinen arteko akordioa eta herritarren hitza kontzeptuek berebiziko garrantzia hartzen dute aurrerantzean. Orain ezin dira debateak ekidin. Espainiako gobernua, Erkidegoko gobernua, alderdi desberdinak, sindikatuak eta eragile sozialak izango dira bake prozesu honen protagonistak. ETA desagertzeko hartu beharreko bide eta neurriak, berriz, Espainiako gobernua eta ETAREN

artearen eman beharko dira.

Beti, uneoro egongo dira herri hau baketzearen aurka dauden interesak. Ez ditzagun ahaztu. Eta ezkutuan badaude ere, modu batean edo bestean prozesu hau leherrarazten saiatuko dira interes horiek dituztenak.

Apirilaren bateko manifestaldia izango da bake prozesuari herritar askok eman nahi diogun bultzadaren agerpide publiko eta jendetsua. "Konponketa garaia da" lelopean hiru kontzeptu azpimarratu nahi ditugu: Euskal Herria, erabakia eta adostasuna. Batzuek adierazi dute ez direla agertuko, hiru kontzeptu horietako batekin ados ez daudela argudiatuz. Bakoitzak jakingo du zer egiten duen. Gu, ordea, ziur gara, bilduko garen pertsona andanak, helburu zintzoak ditugula eta bide horretan manifestaldi hau bakearen alde bultzadatzat bat emateko aukera paregabea dela.



PSEren EAeko ordezkariak –eta Zumaiakoak– adierazia du gai honi buruz duen iritzia. PSOEek eta Zapaterok egiten dutenarekin bat egingo dute.

Su-etenaz

Ezker Batua - Berdeak

Ezker Batua - Berdeak alderdiak martxoaren 22an kaleratu genuen adierazpenak honako hau zihoen, besteak beste:

Su-eten iraunkorra euskal hiritarren garaipena da, azken urteotan behin eta berriro eskatu diotelako ETARI bere jarduna bertan behera uzteko eta bide politiko eta demokratikoen aldeko behin betiko apustua egiteko.

Gure iritiz, su-eten iraunkorrak itxaropenerako, elkarbizitza eta normalkuntza politikorako atea ireki du Euskadin. Orain, euskal gizarteak aukera historikoa dauka, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako etorkizuna eratzeke.

Alde horretatik, elkarrizketa demokratikorako mahaia eratzea aldarrikatzen dugu. Bertan alderdi politiko guztiak egon beharko dira, salbuespenik gabe. Izan ere, adostasunean zein hitzarmenean oinarrituta, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko daukan eskubidea onetsi beharko da, antolamendu juridiko-politikoaren barruan, eta herri-galdeketa bitartez.

Estatuko gobernuari eskatzen diogu, indarreko legeriaren arabera, bidezko espetxe-politika premiaz sustatzeko, preso guztiak euren jaioterritik hurbil egon daitezzen. Euskal gizarteak aspaldi eskatu zuen, eta, orain, inolako aitzakiarik gabe bete behar da.

Bestalde, alderdi politiko guztiei eskatzen diegu etorkizunera begira jokatzeko eta, nor bere arlotik, elkarbizitza, adiskidantza eta normalkuntza sendotzeko moduko ekimenak bultzatzeko. Alderdi Popularrak ere su-eten iraunkorraren iragarpenak oro har sortu duen poztasunean parte hartu behar du, eta Euskadi baketsua eratu nahi dugunok batera lan egin behar du. Amaitzeko, estatuko gobernuak aurrerantzean sustatzen dituen ekimenak zintzotasunez babestuko ditugu. Horrela, bake-prozesua berretsi, bermatu eta sendotu egin ahal izango dugu, eta alderdi politikook elkarbizitza eta normalkuntza politikoari buruz eztabaidatu ahal izango dugu, euskaldunek askatasunez adierazitako borondatea eta erabakia errespetatuz.

bazkideen txokoa

***Txoko berri honetan, zozketa bidez sariak emango ditugu hilero.
Baina, erne! Parte hartzeko bazkide izan behar duzue !!
Idatzi elkartea@baleike.com helbidera, zuen izen-abizenak eta
telefonoa adieraziz.***

Oraingoan, sari hauek ditugu.

Santelmoetako bertso-saiorako bina sarrera bi lagunentzat
Iker Goenagaren maiatzaren 12ko kontzertura joateko, bost
lagunentzako bina sarrera.

Emaitzak web orrian jarriko ditugu, dagokion egunaren
aurretik.

Zorte on!!

Bertso Eskolak eta Udaleko Kultur Batzordeak emandako txartelak.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

ARROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505




Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA

parafarmaziak, belardendak...

Beste era bateko botikak

Antzeko ezaugarriak dituzten bi denda ireki berri dira herrian. Eta antzekoa, baina era berean, ezberdina den beste bat ixtear dago. "Parabotika" eta "Farma Zumaia" parafarmaziez eta "Siwa" belar dendaz ari gara, hurrenez hurren. Naroa García, Egoitz Maia eta Izaga García dendarien iritziak jakin nahi izan ditugu ezaugarri berdin samarrak baina izaera ezberdina duten denda hauen inguruan.



ITZIAR GARATE

Parafarmazia erraz esaten da, baina benetan ba al dakigu zer den? "Farmaziaren alternatiba bat da. Parafarmazian errezetarik behar ez duten farmaziako gauzak saltzen ditugu", azaldu digu Naroak. Hortzetako pasta bereziak, xaboiak edo umeentzako produktuak dira bere apaletan ikus eta eros ditzakegun produktuetakoz. Ez bakarrik, ordea. Belar denda izan gabe, bertako produktuek badute eta euren lekua. Baina, ez dira belar dendak: "Nahasketa bat da, farmazia eta belar dendaren artean", adierazi digu Egoitzek. Analgesikoak, adibidez, ezin dituzte saldu, baina bai horien ordezkioak. "Arazoa berdin sendatzen da, baina modu naturalean. Gaur egun naturala oso modan dago eta horren aurrean parafarmazia alternatiba bat da".

Produktu naturalen modaren inguruan bestelako ikuspuntua du, ordea, Izagak:

"Elikadura munduaren motorra da. (...) Horrela jatea garestiagoa dela esaten dugu, baina kontuz, begiratu ditzagun gauzak zuzen"

"Naturala modan dago, baina hori ere pasako da. Gaur egun gure interesak gehiago daude beste gauza askotan osasunean baino. Ez dago benetako interesik osasunean, kuriositatek ere ez dago. Niri zaila egiten zait ulertzea osasuna saltzen duten leku batean janaririk ez saltzea, adibidez".

Naturalaren aurrean, ordea, Egoitzek eta Naroak alderdi positiboa gailentzen dute: "Jendea hasi da naturalerako joera azaltzen". Izagaren ustetan horren azpian ez dago benetako kontzientzia bat. "Esaterako, gure energia iturria janaria da. Elikadura munduaren motorra da. Iturrari garrantzia handia ematen diogu eta ez gara konturatzen kanpokoak sabelean eta buruan hasten dela. Hor dago gakoa: soja esne litro batek zerbeza batek adina balio du, eta aste osoan irauten du. Ez gara hortaz konturatzen. Horrela jatea garestiagoa dela esaten dugu, baina kontuz, begiratu ditzagun gauzak zuzen".

Ez dira gauza bera

Naroaren ustetan, hala ere, parafarmazia eta farmaziaren artean badago beste ezberdintasun bat: harremana. "Farmazian eskatzen sartzeko zara, baina hemen bueltaka ibili zaitezke nahi duzuna ikusten. Eta hori jendeak eskertzen du. Sartu, galdetu eta begiratu egiten du jendeak. Atseginagoa da erosteko orduan".



Izaga:

"Ez dago benetako interesik osasunean, kuriositaterik ere ez dago"

Egoitz Maya:

"Jende harritu egiten da zenbat produktu, barietate eta gauza dauden ikustean"



Naroa:

"Hemen bueltaka ibili zaitezke nahi duzuna ikusten. Atseginagoa da erosteko orduan"

Prezioak ere ezberdinak dira. "Ez dugu gatazkarik sortu nahi, baina gehiago saltzeko dugun modua da. Bakoitzak bere merkata bilatu nahi du. Farmaziek badute oinarri bat guk ez duguna: errezetak. Merkatu horrekin nolabait lehiatu behar dugu", dio Egoitzek.

Lizentzia berezia edukitzea beharrezkoa ez den arren, guztiak bat datoz asko ikasi behar dela esatean. Izagaren ustetan formazioa oso garrantzitsua da, osasunarekin erlazioa duen zerbait ezin da negozio hutsagatik bakarrik ireki. "Belarrei buruz, etxe bakoitza dator ikastaroak ematera; kremak saltzeko ikastaroak ere egiten ditugu. Prestakuntza bat behar da", argitu digu Naroa. "Aholku bila datorrenari berdin lagundu diezaiokegu". Egoitzen esanetan, prestakuntza beti da beharrezkoa: "Ezagutu egin behar duzu daukazun produktua. Osasu-

naren arloa da hau eta ezin dugu hala-moduz ibili; kontuz ibili beharra dago".

Farmazia eta belar denden artean

Zaila da esatea non egongo litzatekeen parafarmazia, belar dendetako eta farmazietako produktuak saltzen dituztela ikustean. Lekua zehazterakoan, Naroa farmazia eta belar dendaren artean kokatuko luke parafarmazia. Egoitzek, aldiz, dagokien lekua soilik hartu nahi dutela dio, "Merkatuan guztientzat dago". Izaerari dagokionez, "Norberak erabakitzen du parafarmaziari ematen diona. Askotan, zonaldearen arabera izaten da". Bere ustez, "Parafarmaziak belar denda eta farmaziaren artean egotean bi arloak ukitzen ditu. Beraz, egin dezakegun onena ahalik eta zerbizurik zabalena eskaintzea izango da".

Parafarmazien izaeraren inguruan Izagak beste ikuspuntu bat du, ordea: "Parafarmaziek oinarria falta dute. Eta ez badute filosofia hori zaila izango dute aurrera jarraitzea. Belar dendak ere negoziok dira, baina badaukate atzean filosofia bat. Gaixotasuna nondik datorren ezagutu nahi dute, gero hori tratatu ahal izateko.

Antzeko ustea du Egoitzek: "Belar denda eta farmaziako produktuak izanez, bi alderdiak erabiliz tratatu dezakegu. Gehiago hurbiltzen da parafarmazia belar dendara, alderdi horretatik. Sustrai hori dago, arazoa konpontzen ere saiateren gara. Askotan arazo hori ezin da belar dendatik konpondu, baina asko lagun dezake. Sustraitik saiatu behar dugu arazo hori konpontzen. Baina krema edo erremedio naturalen bitartez asko hobetu daitezke gauzak".

Bi parafarmazia batera

Bat-batean herrian bi parafarmazia sortzeko sortu du, beharbada, harridura gehien. Baina biak ia batera irekitzea ez da oztopo izan lan egiteko. "Bioi batera samar bururatu zaigun ideia izan da". Gehiago zehaztu nahi izan du Egoitzek: "Bion artean elkarlana komenigarria

"Jendeak ez daki oraindik parafarmazia bat zer den. Errezetarekin etortzen dira asko. Askok ez dakite produktu naturalak daudela"


da. Ona da bi parafarmazia izatea herrian, bai guretzat, baita kontsumitzaileentzat ere. Konpetentzia ona da, konparatzeko modu bat da. Luzera ona iruditzen zait, elkarlana ona da biontzat".

Orain arte egindako lanarekin ere pozik dago Naroa: "Bi aste daramatzagu eta oso pozik gaude. Jendeak ondo hartu du, horrelako zerbait izateko garaia ere bazela esan digu norbaitek".

Hala ere, oraindik lan asko egin beharra dago Egoitzen iritziz: "Jende askok ez daki oraindik parafarmazia bat zer den. Errezetarekin etortzen dira asko. Erakutsi egin behar zaie, beldurra kendu. Askok ez dakite produktu naturalak daudela. Jende harritu egiten da zenbat produktu, barietate eta gauza dauden ikustean. Nire helburua da herriko jendeari erakustea, konfiantza ematea eta parafarmazia bat zer den erakustea".

Etorkizuna ez du argi ikusten, ordea, Izagak: "Zaila iruditzen zait parafarmaziek aurrera egitea. Merkatua ez da gehiagora joango eta osasunaren azokan, une honetan, ez dakit guztientzat lekurik badagoen".

Herrian bi parafarmazia ireki berri direnean belar denda batek ateak itxiko ditu, baina zerbitzua ematen jarraituko du. Izagak azaldu digunez, "Lagun bat eta ni ostegunetan Zumaiako azokan izango gara eta ostiraletan Zestoakoan. Gainera, telefono bidez eskaerak egin ahal izango dira eta produktua etxean jaso". Oraindik gauzak zeharo zehazturik ez badituzte ere, apirilean hasiko dira zerbitzua eskaintzen. "Hori bai, jendeak informazioa behar badu deitu eta emateko prest gaude".



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01



Kantaun Plaza 6, behea tel. 943 117 406



Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Torreko Emili

ABELIN LINAZISORO

Gerra piztu zenean zu Oikian egongo zinen, ezta?

Bai, baina, gorriak agintzen eon zian garaian, gure ahizpa bat Donostian hil zan. Hau karnizeixa zeukan beste ahizpa baten neskame zebilen eta ez dakit nola pasa zan, baina miliziano batek pistola atera zun eta gure ahizpa hau inpresioakin hil ein zan. Hildakua Kruz Rojara eraman zuten eta ez ziguten guri hura jasotzen utzi. Apaizak ein zizkion azkeneko errezuak eta arreba zaitzen ari zan CNT-koak esan zion apaiz danak hura bezelakoak izan balia, haien kontrako ezer ez zala gertatuko. Gero, beaiek arreba hartu eta etxera eraman zuten. Gero, ba, ni geratu nintzan karnizeixa zeukan ahizpa honei laguntzen. Ezto. Beti bestiai laguntzen.

Zer bizimodu izan zenuen Donostian?

Ba, umiak jaiki, garbitu... Bazkaia ahizpa beak eiten zun eta nik umiak zaitu. Ondo eon nintzan. Jaietan libre izaten nun. Gu San Bizenteko onduan bizi ginan, Parte Zaharrean, eta jaietan neska lagunekin mendi aldera juten ginan. Ez naiz ongo akordatzen nora, Altza aldera edo... Han baserri bat zeon eta dultzaina soinua eoten zala uste det. Batzuek dantza eiten zuten, baina guk pasiatu eta berriketan. Gero aitta hil zitzaigun, anaia ere bai eta hor akabatu zian gure juergak.



Anaia nola hil zitzaizun?

Gerran. Gerrara jun zan hura. Artxandan gudari hil zitzakun.

Noiz arte izan zinen Donostian?

Ezkundu nintzan arte. 1.942 arte.

Gerra garai hartan euskara entzuten al zen Donostian?

Guk beti euskeraz eiten genun. Ez zekitenai erderaz, baina zekitenai beti euskeraz. Han Parte Zaharrean euskera nahiko eiten zan. Plaira juten baldin banintzan ere, euskeraz. Umiai beti euskeraz.

Oikira itzuli eta berehala ezkondu al zinen?

Bai. Segituan.

Eta senargaia nola egin zenuen, ba?

Oikiako plazan. Karnabaletan etxean neon eta Oikiako plazan soinua zeon. Hantxe dantzan ari ginala, mutil bat etorri, harekin dantzan jardun eta hurrengorako zitatu ginan alkar. Hiru hilabetera ezkondu ginan.

*“Sueltzuk lagun honei
esan zixon: hi, nik hiri
mesede ein diat eta
oain hik nei ein behar
diak. Honelako eta
honelako zeatik ezin
dia etorri zumaiara?
Laga haiek pakian.”*

Hiru hilabetera! Hori da gauzak azkar egitea!

Biok zaharrak ginan-da. Nik 28 eta beak 32 edo 33 zitun. Ezkondu behar-ko. Gizonak soldau sei urte ein zitula esaten zun. Hiru urte marinan eta beste hiru gerran. Hura Bilbon harra-patu zuten eta preso Burgosa eaman zuten. Gero trabajadorietan ibili zan. Murtzian eta beste mila tokitan. Behin batian Fragan behi bat ume eiteko men zeon, eta inor atrebizten ez hari

laguntzen. Gure gizonak zer ein behar zen ikusita zun beaien baserrian, prueba ein zun eta bale.

Ezkontu eta zuzenean Torre baserri- ra etorri zinen, ezta?

Bai. Honeaxe. Hamentxe ein dittut nik 63 urte.

Beno, goazen berriro Donostiako kontuetara. Gerra garai osoan Donostian eman al zenuen?

Ez. Hanketako minez gaixotuta Oikira etorri nintzan. Orduan Francoren aldeko hauek zeuden agintzen eta agintari hauek guri debekatu ein ziguten Zumaira juatea. Ba al dakizu zer pasatu zan? Nik garai batian nobioa karlista hauetako bat nun. Donostira juteako ein nun. Ba, Yereginetikan Donostira jun nintzan hartan gauza txar asko aittu nittun eta mutila laga ein nun. Kontuak honela, gerra etorri eta gorriak nagusi zian garaian, gure aittak karlistetako lagun bat zun eta Sueltzuk euki zun ixkutututa. Gero, hauen tropak sartu eta buelta etorri zanean, Sueltzun lagun



Albaitaria
Itxiki Gomendio

Basodi 7 behea - 20750 Zumaiola - Tel.: 943 143 310

Emaila: veterinarria@basodivet.com
Web orria: www.basodivet.com

Orduak: 11-12 / Arrabaldak: 10-19:30 / Arrabaldak guztiak eta larrialdetarako Itxiki.

Larrialdetarako 061 728 787. Duzet euska zerbitzuak.

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



Orduak: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 / 20:00-22:00 / 24 orduko zerbitzuak

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

*“Beti arpegi bera eduki
duna, bale, baina
lehen era batekua eta
gero bestekua...
horrek ematen dit nei
amorrua.”*



honei esan zixon: Hi, nik hiri mesede ein diat eta oain hik nei ein behar diak. Honelako eta honelako zeatik ezin dia etorri Zumaira? Laga haiek pakian. Orduan jakin genun nik nobioa laga nulako izan zala. Beheko Plazako Zelaianeko etxe horretan hartzen zituzten erabakiak. Lehengo alkatia ere, errepublikanoa zalako, oso gaixki ibili zan. Eta apaiza ere detenituta eraman zuten.

Apaiza? Zergatik eta nora?

Apaiza oso jatorra zan. Zeatik ez dakit, baina Amaiako Plazan euki zuten lotu-

ta. Hantxe jendiaren aurrean, lotsatze-ko-edo, kriminala balitz bezela. Don Inazio, Donostiko moilakoa. Barren-dero baten semia zan.

Zumaiatik berriro Donostiara joan zinen, ezta?

Bai. Hantxe eon nintzan ni ezkondu arte.

Ezkondu ondoren egunero etortzen zinen Goiko Plazara, ezta?

Bai, egunero. Goizeko 7,30tan astoa hartu eta Zumaira. Berdura, baba, tomatia... Baserriak ematen zuna sal-

tzera. Neguan hotzak kaz-kaz eon eta etxera. Orduan plaza dana irekita zeon. Komento aldetik zabalik, aiuntamentu aldetik zabalik, aurretik zabalik... Haizia nagusi ibiltzen zan. Ezto. Eon ein bihar.

Ezkondu ondoren Zumaiara etortzen al zineten mezetara?

Zumaira ez. Oikira. Don Inazio "Mendaro"nekoa eoten zan han. Gero, baserrian, gizonaren aldeko ume bat ekarri zioten aittari. Gizon bat alargundu zan eta aittari esan zion: Bi urte egindakoan ekarri

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak.
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Arkupe

*Okindegia
eta gosariak.*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

Zumaiia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaiia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ALTZARIAK
S.L.

Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



idazu. Lehen bi ume geneuzkan eta beste bat hartu nun. Danak ez zian konforme, baina... Gure bizimodua horrelakotxea izan da. Lan da lan.

Plazako kontu berezirik?

Ez. Oain jateko ia dana kanpokua etortzen da, baina orduan inguruko baserritarrak etortzen ginan saltzera. Astoa kanpoan lotu eta plazan bakoitza bere tokira. Gu baserrita-

rrak gure artian ondo konpontzen ginan.

Gerra ondoren zer esan eta nori esan tentuz ibili beharko zenuten, ezta?

Horrek ez niñun kezkatzen. Ahoa itxi eta bale. Beti arpegi bera euki duna, bale, baina lehen era batekua eta gero bestekua... Horrek ematen dit nei amorrua. Emakume hoixek danak txapel gorriakin ibiltzen zian. Francon

tropak herri bat hartu zutela eta kanpaiak jo eta txapel gorriakin ibiltzen zian desfilean.

Amaitzeko. Zure bizi osoa lanerako izan da, orduan.

Bai. Hala da. 88 urte ein arte beti ein det lana. Azken urte hauetan batez. Oain karga bat hartzeko arnasa estutzen zat eta ezin. Honela geldik eotea azkenengoa da. Hobe lanian honela baino. Zuen amari ere lana eitea toka-tu zitzakon.

Bai hori ere hala da.

Hark etena zeukan umea sendatu eiten zun. Gure semiak etena zeukan. Eta behin Oikiko amari galdetu zion: Zer moduz zeate? Gu ondo, baina umia etena jaio zaku... Ez kejat, hark, neuk sendatuko det. Hala, algodoizko hariakin etxera jun eta esan zion: Nik neria honelaxe sendatu iñat eta hik ere ikasi zan. Ondo begiratu, e? Algodoia gerrian lotu, izterretik bueltan hartu eta eten koxkor gainian korapiloa eiten zion, etena barrura sartzeko, eta gero gerritik bueltan atzea berriz lotu. Etena zeukan ume asko sendatu zun hark. ■

geobidun kornioa baskulageria
geobid: 15m.-4m.



GARRAIOAK
Asensio Artebe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 055 706 557
Izasteri, 5-2A (Zarua) • Adzpigosa, 16-E (Mirreleri)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1



Erribero Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 79

STIAO
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

Puntanueta: amets eta bizilekua?

Azken egunetan hainbat berri jaso ditugu Zumaia Lantzen enpresaren inguruan. Artikulu honetan ez dugu berriz azalduko informazio hori, baina bai, aldiz, Puntanueta etxebizitzei buruzko iritzi batzuk.

IZASKUN URBIETA

Dakizueenez, Zumaia Lantzen-ek Puntanueta lurra erosi zuen, bertan babes ofizialeko eta tasatutako etxebizitzak eraikitzeko.

Horrekin, Zumaia herriari bultzada eta garapena ekarriko zion proiektu bat aurrera atera nahi zen. Hau da, gazteei aukera eman etxea Zumaian erosteko, etxebizitza duin eta merkeagoak eskaini eta abar.

Baina zein baldintzatan eraiki dituzte etxe hauek? Arazoa besterik ez al dute sortu?

Gure belarrietara iritsi zaigunez, bizilagunek kexa ugari izan dituzte. Hori ziurtatzeko, beraiekin hitz egin dugu, baita obrako arduradun batekin ere.

Bizilagunen iritziak, arazoak ia etxeak eraikitzearekin batera hasi ziren. Behin etxeak amaiturik, jabeek giltzak eman zituzten, bakoitzak altzariak jartzeko neurriak har zituzten. Baina etxera sartu orduko, akats ugari ikusi zituzten. Akatsak ikaragarriak ziren: eskaiola gaizki ipinita, paretak gaizki margoturik (marrez beteta), egurra eta baldosak oker jarrita, leihoak ongi ixten ez zirela eta abar.

Beraz, hanka sartze nahikoa larriak gertatu ziren.

Bizilagunen etxegileengana joan ziren, arazoez galdetzeraz, eta erantzunen bat lortu nahian. Bertako arduradunak esan zituzten, ordea, pertsona batzuk gehiegi kexatzen zirela eta ez zirela protestatzeko moduko akatsak.



bizilagunak:

Akatsak ikaragarrikoak ziren eta horietaz konturatzeko ez da gaian aditua izan beharrik.

obrako arduradunak:

Guk benetan konponbidea behar zuten arazoei eman diegu, eta ez besteei.



Baina bertan etxea duen batek azaldu digun moduan, "Akatsak ikaragarrikoak ziren eta horietaz konturatzeko ez da gaian aditua izan beharrik".

Bestalde, bizilagunek ikusi duten beste arazo bat izan da akatsak konpontzeko garaian egin behar ziren tramiteak. Lehendabizi, obrako arduradunarengana joan, kexatzera; horrek uste bazuen konpondu beharreko akatsa zela gremioari deitzen zion. Ondoren, gremioko langileak etortzen ziren akatsa baloratzera eta neurtzera. Gero, handik egun batzuetara, berriz bueltatzen ziren zuzentzera. Azken finean, tramitea oso luzea zen eta beharbada kristal berri bat ezartzeko 3 aste egun behar zen zain. Horren aurrean, bizilagun batzuek zuzenean deitzen zuten gremioetara.

Etxeak barrutik politak direla esan digute bertan bizi direnek, baina akatsak gehiegizkoak izan direla eta beti langileen gainean egon behar izan direla.

Azken boladan hezetasunaz kexatzen hasi dira lurra altxatzen ari baita, eta etxabeetan bizi direnak elkartzen ari dira, arazo garrantzitsu bat baitute. Proiektuaren arabera, etheen arte-

an parke bat eraiki behar zuten zuhaitzez, eserlekuez eta abarrez beterik. Baina orain arte ez dira belarra ipintzen jarri eta nahiz eta landatu, belarra ez da fatxada arte iristen. Hortaz, etxabeetako bizilagunek intimitatea galtzen dute, jendea bertan gelditzen baitzaie begira.

Obrako arduradunak, aldiz, ez digu askorik kontatu. Bere iritziz, bizilagunak gehiegi kexatu dira eta batzuek ez dute izan arrazoirik. Bere hitzetan "Edozein eraikuntzatan sortzen dira arazoak eta ez Puntanuetan bakarrik. Guk benetan konponbidea behar zuten arazoei eman diegu, eta ez besteei".

Argi ikusten dena da bakoitzak bere interesen arabera jokatzen duela. Nahiz eta batzuen iritziz langile ez kualifikatuak jardun duten lanean, besteen ustez jendea kexatu besterik ez da egin.

Bukatzeko, azpimarratu daitekeena da pertsona askok amesteko bizilekua topatu zutela bertan. Hau da, etxebizitza merkea lortu zuten, herrian bertan, polita... baina dena ongi jarri arte eta bertara bizitzera joan arte, amesgaizto batean egon dira.



- * Eguneko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

imanol azkue

"Ez nuen Lizardi Sarira aurkezteko asmorik, baina Gabonetako oporretan ipuinaren ideia burura tu zitzaidan"

IURE ALTZIBAR

Aurreko alean iragarri genizuen Imanol Azkuek Zarauzko Udalak antolatutako XXIV. Lizardi Saria irabazi duela. Badu esperientzia haur eta gazteei zuzendutako ipuin lehiaketa honetan, hiru aldiz aurkeztu eta bitan saria lortu baitu. Apirilaren 25ean izango da sari banaketa Zarauzko Sanz Enea udal liburutegian. Honetaz guztiaz hitz egin dugu Imanolekin.

Ipuina argitaratzea da lehiaketako sarietako bat. Noiz kaleratuko da? Inprentan dago eta lehenengo frogak bidali dizkirate. Bi edizio egiten dituzte: bata, Zarauzko Udalarentzat; bestea, argitaletxeak (oraingoan Elkarrek) egiten duena. Zarauzko Udalarentzat egindako edizioko 2.400 liburuak Zarauzko ikastetxeetako haurrei banatzen dizkiete. Edizio hori apirilaren 20rako-edo prest egongo da.

Goazen, bada, ipuin irabazleaz hitz egitera. Zer kontaktzen da "Kea airean bezala" ipuinean?

Bi gauza bereiziko nituzke: agerian edo azalean zer kontaktzen den eta horren azpian zer kontaktu nahi nuen. Azalean kontaktzen da bi anai-arrebaren istorioa, Lionel eta Krisena, nola bizi diren egunerokoa harrera-etxe batean; mutilak 11 urte ditu eta neskak 16, eta gurasorik

gabe daude, aita ospitalean dagoelako; baina azpian benetan azaldu nahi nuena zen hobeto bizi nahia, maitasuna eta goxotasuna bilatzea, bakardadeari aurre egitea, horretarako batzuetan irudimenarekin ihes egin behar bada ere.

Mutilaren ikuspuntutik kontaktzen da istorioa eta haur horrek bizi dituenak azaltzen dira: ospitalean duten aita ikustera joaten direnean zer gertatzen den, nola bizi nahiko lukeen...

Istoria hamaika urteko umearen ikuspuntutik azaltzen dela diozu. Erraza al da adin horretako pertsona baten lekuan jartzea?

"Ipuina inprentan dago eta lehenengo frogak bidali dizkirate. Apirilaren 20an kaleratuko dute. "

Niri ez zait asko kostatu, baina ez dakit zenbateraino dudan. Ez dakit benetan adin horretako haurrek zer daukaten buruan eta zer ez, eta imajinatu behar izan dut. Bederatzi



"Lehiaketak presioa sortzen du eta hori onada, horrela norberak bere buruari halako egunetarako zerbait idazteko eskatzen diolako."



urteko semea daukat eta horrelakotan haren lekuan jartzen saiatzen naiz.

Nola bururatu zitzaizun horrelako ideia bat lantzea?

Ipuin denak ezberdinak izaten dira: batzuetan bukaera bururatzten zaizu, beste batzuetan ideia nagusia izanda haren aurrekoa eta bukaerakoa asmatu behar duzu... Kasu honetan, esaldi bat nuen (ipuineko lehena) eta horretatik gainerako guztia asmatu behar nuen. Egia esan, ipuina asmatzen hasi nintzeanean ez nekien nola bukatuko nuen. Hasiera nekien eta idazten joan ahala egin nuen amaierarako bidea, baina non amaituko nuen hasieran jakin gabe.

Orain arteko lanak ere kontuan hartuz, ipuinak lehiaketan parte hartzeko idazten dituzu edo denbora pasa moduan?

Denbora pasarako dira, baina lehiaketak akuilu oso onak dira. Lehiakete

tek presioa sortzen dute eta hori onada, horrela norberak bere buruari zerbait idazteko eskatzen diolako. Denboraren presio hori ez baduzu erraza da idazteari uztea, nire kasuan, behintzat. Lehiaketa baten berri izaten badut, ahal badut astia hartzen dut idazteko; batzuetan bukatzen dut eta besteetan ez. Ez naiz horrekin itsutzen: bukatzen badut ondo, eta bestela ez da ezer gertatzen.

Ipuin hau, adibidez. Ez neukan Lizardi sarira aurkezteko asmorik, ez neukan ezer ere idatzita, baina Gabonetako oporretan ideia bururatu zitzaidan eta, denbora nuenez, idazten hasi nintzen. Epea urtarrilaren 12an amaitzen zen eta garaiz bukatu nuen. Baina ez nintzen itsututa ibili.

Haur eta gazteei zuzendutako ipuinez gain, beste zerbait idazten al duzu? Beste generorik lantzen al duzu?

Helduei zuzendutako ipuinak ere

idazten ditut. Aspaldian ez ditut lehiaketetara aurkeztu, baina aurkeztu izan ditut: Julene Azpeitiara... Liburu bat ere argitaratuta badaukat, Egunerokoa ez dena, ipuin batzuk bilduta.

Generoari dagokionez, batez ere ipuingintzan aritzen naiz. Idaztearekin zerikusia daukaten lanak ere egiten ditut, idaztea gustatzen zaidalako. Baina literatur arloan ipuingintza dut gustuko.

Amaitzeko, hemendik aurrera ere lehiaketetan aritzeko asmoa al duzu?

Asmoa ez. Ideia on bat bururatzten bazait eta garai horretan lehiaketaren bat dagoela jakiten badut, saiatuko naiz bukatu eta aurkezten; baina asmorik ez. Badaude idazleak lehiaketen egutegia betetzen dutenak: urtarrilean bat, otsailean beste... Ni ez naiz horrela ibiltzen. Egunen batean istorio bat badaukat eta lehiaketa bat badago bidaliko dut, baina bestela ez.

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BEDUA
ITURGINTZA S.L.**
ANTONIO AZPILLAGA



**-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMAILEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

ZINE FORUM

"Udaberrirako zinea"

Hasi dira udaberriko zine forumeko saioak. Apiriletik ekainera bitartean 6 film eskainiko dituzte Aita Marin. Dagoeneko eman duten "Una canción del pasado" filmaz gain, beste bost gelditzen zaizkigu ikusteko: "El séptimo sello", "Crash", "Las llaves de casa", "Vete y vive" eta "Buenas noches y buena suerte". Hemen dituzue hurrengo biak. Ikusi eta gozatu.

apirilak 20, osteguna, gaueko 10:15ean

El séptimo sello

Zuzendaria: Ingmar Bergman Aktoreak: Max Von Sydow, Gunnar Björnstrand, Bibi Andersson



Uppsalan (Suedia) jaiotako Bergman eta munduko zuzendari handienetakoa dena antzerki zuzendari izatetik 1945ean zinema zuzendaritzara pasa zen. Hasieran pelikula serioez gain komedia

arinak ere egin zituen: *Juegos de verano*, *Un verano con Mónica*, *Sonrisas de una noche de verano* eta abar; baina *El séptimo sello* egin zuenetik bere filmak askoz sakonagoak bihurtu ziren. Begmanen kezka nagusiak hauek dira: bikotearen (gizon-emakumea) arteko harremanak, heriotzaren presentzia eta jainkoa ba ote den ala ez. Seguru asko, bikoteen harreman horietan gehien sakondu duen zuzendaria izango da, eta emakumeen zuzendaritzan onenetakoa.

El séptimo sello famatu honetan, zaldun bat gurutzadetik bere lurraldera fedea erabat galduta itzuliko da; kostaldean Heriotzarekin topo egin eta berekin eraman nahiko du.



Zaldunak, hil aurretik, bere emaztea ikusi nahi duenez, xake partida bat irabazi ala galdu erronka egingo dio, heriotzari irabaziz gero, berekin eramango ez duen esperantzaz. Horrela, emaztea hainbat urtetan zain daukan zaldunaren gazteluraino doan kostako bidea, bide fisikoa, morala, jokoa eta ikerketa bihurtuko da. Alde iluna ikusiko dugu: beldurrak mutu geratu den neska, sorgina den akusaziopean surtan erreko duten neska gaztea, izurritea Jainkoaren zigorra delakoan beren buruak txikitzen ari diren erromesak, Heriotzaren dantza... Baina baita alde argia ere: haur txiki bat duten txerpolari bikotearekin ere topo egingo du eta Bergmanek horien apaltasuna eta inongo amarririk ezagutzen ez duen sotiltasuna azpimarratuko du. Esanez bezala, zoriotsu izateko honelako pertsona izan behar dela.

Filma harrigarria eta txundigarria da. Kontrastez beteriko argazkiak, zuria eta beltza, misterio eta beldur kutsu apartekoa ematen dio film osoari. Itsasertzeko olatuetatik hasi eta gazteluraino doan bide osoak, zaldunak sorginari egiten dion galdeketa eta penitentzia egiten duten erromesen prozesioa azpimarratuz, pantailari begiak kendu ezinik egonaraziko gaitu. Maisu lana.

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERCATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

maiatzak 4, osteguna, gaueko 10:15ean

Crash

Zuzendaria: Paul Haggis Aktoreak: Don Cheadle, Matt Dillon, Brendan Fraser



"Norbaitek zu ukitzearen sentsazioa da. Benetako edozein hiritan, oinez zozela, pasatzen ari den jendea ukitu egiten duzu, edo estropezu egiten duzu. Los Angelesen ez: inork ez zaitu ukitzen. Beti gaude metalaren eta kristalaren atzean. Hain dugu beharrezkoa ukitzeko sentsazio hori, iruditzen zait elkarren gainera salto egiten dugu zerbait sentitzeko".

Paul Haggis-ek gidoigile bikaina dela erakutsi zigun *Million Dolar Baby* pelikulan, baina hau du lehen pelikula zuzendari- lanetan. Film korala da, pertsonaia askokoa, *Magnolia* eta *Vidas Cruzadas* bezain pelikula bikainen antzekoa. Paul Thomas Andersonen eta Robert Altmanen pelikuletan bezala, *Crash*-en ardatza gizaki batzuen bizitzak dira, eta pertsona horiek halabeharrez gertakari batzuen aurrean kokatuko dira, elkarrekin gurutzatuko diren gertakariak, eta amildu egingo dira horietan. Bai segundo labur batek irauten duen denboran, bai une eta leku desegokietan egokitzeagatik, *Crash*-en barruan gertakariak astindu egingo dituzte pertsonaia guztiak eta bakoitza bere inertiatik aterako da; prozesu horretan, hainbeste denboran ezkutuan eta egunero-egunero egosten aritu den amorrazioa eta arrazakeria aterako dira azalera, bor-borka ari den Los Angeles inurritegian.

Nikol Enea


TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa.
Balarazioak

ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

Etx

informatika

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

DEIALDIAK

- SANTELMOAK: apirilaren 21etik aurrera, SAN TELMO JAIK (ikus egitaraua, Baleiken bertan)
- BIDEZKO MERKATARITZA AZOKA: Apirilaren 28tik 30era Parrokiko Taldeak antolatuta, Alondegian.
- ZUMAIAKO ARGAZKI LEHIAKETA: txuri-beltzean. Gaia: "Ura". Lanak aurkezteko epea, ekainaren 22ean. Informazioa kultur etxean (943-861056)
- IRTEERA MUSIKALA: Maiatzaren 20an, Kursaalera AIDA ikustera. Sarrerak salgai maiatzaren 3tik aurrera.
- NATUR ASTEBURUA: Maiatzaren 19tik 21era. Zumaiaiko Natur Taldeak antolatuta.

IRTEERAK

- Bisita naturalista: apirilak 9, 23; maiatzak 7, 21
- Geologikoa: apirilak 14 eta maiatzak 13
- Kulturala: apirilak 14, 15 eta 29; maiatzak 6, 13 eta 27

Trekking: apirilak 16 eta maiatzak 14

Itsaslabarrak eta ibaia: maiatzak 27

TXANGOIA:

Apirilak 8, Tudela- Las Bardenas

Maiatzak 6, asteburua Santanderren; Informazioa: Turismo bulegoan (943-143396)

ERAKUSKETAK

Alondegian (egunero 18:00-20:00)

- Maiatzaren 4tik 17ra: JOSU ARRIETA

- Maiatzaren 20tik 28ra: BI ARRI – Eskulan tailerretako lanak.

- Maiatzaren 31tik ekainaren 11era: Forondako Pintura Tailerraren lanak

GAZTETXOLA

- Apirilaren 7an DARDO TXAPELKETA

- Apirilaren 8an SAN MIGELERA EGUN PASA

- Apirilaren 21 eta 22an ISPILU TAILERRA

-Apirilaren 28 eta 29an.

ESKUZ EGINDAKO XABOIAK

- Maiatzaren 5ean SAN TELMOETAKO ARGAZKI LEHIAKETA:

- Maiatzaren 6an ZINEMA: "Kids"

- Maiatzaren 12an MAHAI JOKUAK

- Maiatzaren 19, 20 eta 26an ZERAMIKA TAILERRA

- Maiatzaren 27an: ZARAUTZEKO GAZTELEKURA IRTEERA

IKASTAROK

- Photoshop: maiatzaren 3tik 31ra. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 19:00etan, kultur etxean. Izenematea: 943-861056/foronda@zumaia.net

- Skate Tablak margotzeko eta bideo tailerra: apirilaren 18tik 21era eta maiatzeko ostegunetan. Izen ematea apirilaren 12a baino lehen Gaztetxolan.

APIRILA

Igandea, 9
17:00etan, Aita Mari aretoan,



Santelmoak 2006

Betiko txupinazoaz gain, aurten txupinazo alternatiboa egingo du Gazte Asanbladak Santelmoetako lehenengo ostiralean. Edabe arraroren bat edateko aukera ere izango omen da...

"Eujenia ardiaren bidaiak" haur antzerkia.

Osteguna, 20:

22:15ean, zine forum saioa: "El séptimo sello"

21etik aurrera: SAN TELMO JAIK (ikus egitaraua)

MAIATZA

Osteguna, 4:

22:15ean, zine forum saioa: "Crash."

Larunbata, 6:

16:30ean, "Gure itsaslabarra" – irteera geologikoa.

Zumaia-arentzat.

Ostirala, 12:

22:00etan, Aita Mari aretoan, IKER GOENAGAREN Kontzertua.

Larunbata, 13

Udal Musika Bandaren Kontzertu didaktikoa.

Osteguna, 18:

22:15ean, zine forum saioa: "Las llaves de casa".

Ostirala, 19:

22:00etan, Aita Mari aretoan, TXALOREN "Erreleboia" antzezlan.



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

Zure
larruazala
leun-leun
goza
dezazun


FotoDepilazioa

ESKAITZA!
Izterondoak 85 €

Hilabetero
eskaintza
bereziak
Galdetu lasai

Depitotal

Tel. 943 86 13 22
Bonifacio Etxegarai z/g
Zumaia



Citroën C4

TEKNOLOGIAREN BOTEREA



ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa 22 Tel/faxa 943 143 143